

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak eta Errege Bardeetako Erkidegoak lankidetzak sinatu dute

Horren bidez, lankidetzak ekonomikoak sustatu, teknologia berriak ezarri eta inbertsio berrien eta toki kudeaketako ereduaren analisia egin nahi da

Miércoles, 18 de mayo de 2011

Amelia Salanueva Murguialday Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazio kontseilariak eta José Antonio Gayarre Bermejo Nafarroako Errege Bardeetako Erkidegoko lehendakariak lankidetzak-protokoloa sinatu dute gaur goizean, Erronkari eta Zaraitzu ibarretako 19 udalerriri eta La Oliva monasterioa barruan hartzen dituenak. Ekitaldia Nafarroako Gobernuaren prentsa-aretoan egin da eta bertara Toki Administrazioaren zuzendari nagusia eta Julián Isla eta José Luis Carrica Errege Bardeetako Batzordeko kideak joan dira.

Protokolo horren bidez, Toki Administrazio departamentuak Bardeetako esparru juridiko-ekonomikoan eta teknikoan laguntza eta lankidetzak sustatu eta emateko konpromisoa hartzen du, baita teknologia, metodologia eta toki kudeaketako eredu berriak ezartzeko lankidetzak ere, besteak beste, akreditazio-txartelen sistema.

Horrez gain, dokumentuaren arabera, gaur egungo 2009-2012 Toki Inbertsioen Planetan Foru Komunitateak aldi honetan Errege Bardeetan egindako inbertsio batzuk sartzeko aukera dago, baita entitate horrek etorkizunean egin ditzakeen ere, xedea oinarritzko azpiegituren garapena izanda (hornikuntza, saneamendua, arazketa, etab.). Protokoloan Bardeekin departamentu arteko batzordea sortzeko aukera ezarri da, elkarrekin jorratu behar diren gaietarako.

Amelia Salanueva kontseilariak azaldu duenez, Foru Gobernuaren eta toki entitate horren arteko lotura ona zen arren, beharrezkoa zen bien arteko lankidetzari "eduki gehiago ematea" Errege Bardeetan garapen berriak sustatzeko, inguru horretako berezitasunei ere eutsiz. "40.000 hektarea hauek kudeatzeko, erkidegoa osatzen duten 22 kideekin jardun berezituak egin behar dira, beste toki entitate bat balitz bezala", esan du kontseilariak.

Bestalde, Gayarrek esandakoaren arabera, gaur sinatutako akordioak Errege Bardeekin aspalditik zituzten "egonezinei" erantzuten die eta Foru Gobernuarekin lotura indartzen du.

Erkidegoko 22 kideak

Gaur sinatutako dokumentua aurretik Bardeetako ordezkariekin toki entitatearen borondatea jakiteko izandako bileren emaitza da. Protokoloak ente horren berezitasunari erantzuten dio. Entitatea aspaldi-aspaldikoa da eta horren xedea da ordenantza bereziak dituen lurralde zabaleko

ondasunak eta eskubideak gozatzea eta aprobetxatzea.

22 kideetatik 19 udalerrriak dira (Tutera, Arguedas, Valtierra, Cadreita, Caparroso, Zarrakaztelu, Buñuel, Cabanillas, Mérida, Alesbes, Corella, Milagro, Fustiñana, Santakara, Cortes, Martzilla, Azkoien, Funes eta Faltzes); eta bi makomunitateak, Erronkarikoak (Burgi, Garde, Izaba, Erronkari, Urzainki, Uztarroze eta Bidankoze) eta Zaraitzukoak (Espartza, Ezkaroze, Galoze, Gorza, Itzaltzu, Jaurrieta, Otsagabia, Orontze eta Sartze). Era berean, Bardeetan izaera ez-publikoa duen pertsona ez-juridikoak parte hartzen du, La Oliva monasterioak.

Errege Bardeak izeneko inguruak 41.845 hektarea eta paisaia bereziak ditu. Parke Naturala da 1999tik eta 2000. urtetik Biosferaren Erreserba ere bada. Bardeetako Erkidegoa organo kudeatzailea da.